



BARREN

TOKIKOM

Eragiteko prestatzen





943 743 704
688 769 657



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



EXPRESS ESKAINTZAK!

SAMSUNG
RB38T674CS9/EF
KONBIA

799 €
unitateko



- Kanpoko pantaila.
- Akabera metalizatuko heldulekua.
- Kaxoi bikoitza Optimal fresch eta Humidity control-ekin.
- Inox premium.
- 385 litroko edukiera.
- 203 zm-ko altuera.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LANBIDE HEZIKETA

ATE IREKI
BIRTUALA
MARTXOAK 17
18:00



info gehiago, gure
webgune eta sare
sozialetan!



943 20 32 44

www.armeriaeskola.eus

"Mende bat biharrian"



NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK
Europa/Mundurako bekak
Zikloak ingelesez



METODOLOGIA
BERRITZAILEAK
Erronketan oinarritutako
talde lana



ESKAITZA ZABALA
Erdi eta goi mailako zikloak,
espezializazioak



GERTUKO
HARREMANA eta
ORIENTAZIO
PROFESIONALA



LAN AUKERA
ZABALA
Enpresa harreman estua



LAN POLTSA
Langile teknikoen beharra



ArmeriaEskola^x

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Umekeriak

“euren artean konpontzea hobe delako” edo “aske direlako euren adiskidetasunak erabakitzeko”. Nola izan daiteke bat erabakitzeko aske oraindik laguntasuna zer den eta nola gauzatzen den ez dakienean? Nola konponduko dute euren artean, oraindik joku garbiaren arauak ezagutzen ez dituztenean? Haurrak gatazken kudeaketan adituak izatea espero dugu 8, 9, 11 urterekin?

Herri txikitian bizitzearen onurez hitz egiten dugu sarri, haurrak autonomia garatzeko aukera dute txikitatik eskolara oinez bere kabuz joanaz, kalean lasaitasunez ibiliz beti egongo delako helduren

bat gertu laguntzeko prest, etab.

Baina, seme edo alaba lehen aldiz dardarka, urduri, etortzen zaizunean larunbat iluntzean etxera, trastabiloka kontatuz nola neska baten bila ibili diren talde ezberdinak herrian zehar behin eta berriro esanez jo eta ilea erreko ziotela eta konturatzen zarenean hain irmoki eta hainbeste orduz haurrak sinetsi egin duela amenazua errealitate bihur zitekeela, bere herritxoko kaleetan sentitu izan duen lasaitasun eta segurtasuna galduz... Zer erantzun eman behar diogu heldu eredugarri modura?

Baina, neska jo dute? Ez. Baina, neskari ilea erre diote? Ez.

Orduan, ez da ezer gertatu?

“Baina, neska jo dute? Ez. Baina, neskari ilea erre diote? Ez. Orduan, ez da ezer gertatu?”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Baskoizarraren Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p>MENDIARO 1983</p>  <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	--



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► BULTZA EUSKALTEGIAKI!-BULTZA EUSKARA!

Bultza euskaltegiak!-Bultza euskara! izeneko dinamika jarriko dugu abian, aurten ere euskalduntze-mugimenduaren garrantzia plazaratzeko.

Hiru ardatz ditu dinamikak: lehenengoa, administrazioari begira eta eragileei inplikazioa eskatzea; bigarrena, hilaren 28an herri askotan egingo ditugun ekitaldiak babestea; hirugarrena, ekarpen ekonomikoa egiteko eskaera.

Zure bultzada nahi dugu!

Mezu honen bidez, animatu nahi zaitugu kanpaina ezagutzera, eta, era berean, zure aldetik, lau haizetara zabaltzera. Halaber, martxoaren 28an antolatuko dugun ekitaldira gonbidatu nahi zaitugu.

Elgoibarren, Maalako parkean eguerdiko 12:00-12:30. Gorde eguna: Aurten ere kalean nahi dugu euskararen lekukoa, euskaltegiak aldeko bultzada.

AEK euskaltegia

► OHARRA

Datorren barikua, martxoak 19, jai eguna denez, datorren asteko alea eguenean kaleratuko dugu. Hori dela eta, datorren asteko astekarian zerbait argitaratu nahi izanez gero (zorian-agarriak, merkatu txikirako oharrak...) martitzen eguerdirako ekarri edo bidali beharko duzue BARREneko erredakziora.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeak zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

943 744 457

QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedena bete hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egindakoak.





Zuen keaxak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Pedro Migel Urruzuno kaleko edukiontzia k gainezka egoten dira askotan: "Pedro Migel Urruzuno kaleko lurrazpiko edukiontzien edukiera ez da nahikoa inguru horretan dauden komertzio eta ostalariek sortzen duten zabor guztia hartzeko. Paperaren edukiontzia, bereziki, gehienetan beteta egoten da, eta edukiontzien inguru guztia kaxaz betetzen da. Ez dakit sarriago hustu behar diren, edo beste lekuren baten ere jarri beharko liraketekeen edukiontzia, baina gaur egun ematen den zerbitzua ez da nahikoa".



Jarlekuak hondatuta daude Altzolan: "Bainuetxeko Zumardian dauden jarlekuak hondatuta daude, eta eskertuko genioke Udalari konpontzea".

Aita Agirre kulturguneko komunak eserita pixa egitekoak dira: "Aita Agirre kulturguneko komunak mistoak dira, emakume zein gizonezkoentzat, alegia. Baina denok dakigu bi komun mota daudela, eserita pixa egitekoak eta horman jartzen direnak, txiza zutik egiteko. Aita Agirreko komunetan daudenak txiza eserita egitekoak dira, emakumea zein gizonezkoa izan. Baina gizonezko askok zutik egiten dute, eta dena zipriztintzen dute. Komunak konpartitu behar baditugu, errespetuz jokatzeari eskatu nahi diet gizonezkoari, eta arauak betetzea. Pixa eserita egin behar bada, eseri eta kitto, ez da horrenbeste kostatzen. Oso desatsegina da komunean gaudela alboan gizonezkoaren pixa txorrotara entzutea, eta aldiz, haren atzetik sartzen bagara, nazka ematen du dena txiza zipristinez beteta aurkitzea. Europako herrialde askotan debekatuta dago eserita erabili behar diren komunetan zutik txiza egitea, eta ikastetxean zein etxean umetatik irakasten diete mutikoei eserita txiza egiten. Jokatu dezagun ba zentzuz, elkarbizitzagatik eta higieagatik!".

Herriko Antzokiko edukiera zenbat lagunekoa da? "Oker ez banago 190 pertsonatakoa da une honetan Herriko Antzokiko edukiera. Zergatik ez dira sarrera guztiak esku-ragarri jartzen? Zea Maysen kontzerturako, adibidez, 163 sarrera jarri dituzte salgai lehen saiorako eta 177 bigarrenorako. Zein erabilera dute falta diren sarrerek?". Kultura Sailera jo dugu eta esan dutenez, 180 laguneko edukiera dauka une honetan Herriko Antzokiak. Era berean azaldu dute Kultura Sailaren programazioan, antzerkietan eta kontzertuetan, hauentzako gonbidapenak gordetzen dituztela: "Ludoteka, Gaztelekua, Tertuliak programa, antzerki konpainiak edo taldeek kontratuan eskatzen dituzten gonbidapenak, antzezlanak edo kontzertua ikusteko interesa duten programatzaileak, beren herrietan programatzeko, Elgoibarko Udaleko zinegotziak (aldeztatik hala eskatzen badute), egunean bertan lanean ari diren Kultura Saileko langileak, Udalak antolatutako lehiaketetarako sariak emateko, Komunikabideekin lortzen diren akordioetarako (Euskadi Irratia, Naiz...), ikuskizunaren edo kontzertuaren doako zabalkundearen truke. Argitu dute ez dituztela beti denentzat gordetzen gonbidapenak, ikuskizunaren ti-pologiaren arabera baizik.

Jarlekuak jarri dituzte Aubixa inguruan: "Elgoibarko Udalak jarlekuak jarri ditu Aubixa eta Santumotz inguruan, eta eskerrak eman nahi dizkiogu. Asko ibiltzen gara han inguruan pasiaran eta oso ondo etorri zaizkigu. Mila esker".



Jolasleku handia estaltzen eta ikasgelategi berria eraikitzen ari dira Elgoibarko BH Institutuan

Obretan ari dira Elgoibarko BH Institutuan. Batetik, jolasleku handia estaltzen ari dira egurrezko egitura handi batekin, eta bestetik, ikasgelategi berria ari dira eraikitzen. Ikasgelategi berriak bederatzi espazio izango ditu guztira, Iñaki Odriozola zuzendariak argitu duenez. Batetik, sei ikasgela handi sortuko dituzte: lau arruntak, eta beste bi handiagoak. Horrez gain, bilerak egiteko beste bi gela txikiago ere sortuko dituzte ikasgelategi berri horretan, eta azkenik, kanpora emango duten komunak ere bai. Obrek ia milioi bat euroko kostua izan dute.

Odriozolak jakinarazi duenez urtarrean bukatzekoak zituzten lanik handienak, baina atzerapen bat izan da, eta ondo bidean, martxoan bukatzea espero dute. Obrak amaituta, espazio horiek ekipatu beharko dituzte eta hor ere izango dute lanik. Horiek denak eginda, nahiko lu-kete datorren ikasturterako erabilgarri izatea espazio berria, datorren urtean beste gela bat osatuko delako DBH1n eta guztira, 17 gela izango dituztelako Institutuan. "Estu-estu geunden, baina orain, plastika gela, musika gela eta bigarren informatika gela bat izatea espero dugu", zehaztu du.



26 saltokik hartu zuten parte Txankakuaren kale-azokan



Joan zen asteburuan kalera atera zituzten denboraldiz kanpoko salgaiak herriko merkatariek, prezio merkeagoan. 26 merkatarik hartu zuten parte guztira, eta denetarik produktuak deskontuekin erosteko aukera izan zuten herritarrek. Bi egun horietan erosketak egiten zituzten herritarrei txartel bat eman zieten, 300 euroko zozketan parte hartzeko. 100 euroko hiru erosketa bono zozkatu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: Nora Isasti, Mari Carmen Salegi eta Manuel Martin.

Merkataritxiak dirulaguntzak emango ditu Jaurlaritzak

15.800.000 euroko dirulaguntza emango du Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak merkataritza txikiaren ekipamendu pertsonalaren azpisektoreari eusteko. Laguntzen tramitazioa telematikoa izango da soilik, eta martxoaren 30era arteko epea egongo da eskaerak egiteko. Dirulaguntzaren zenbatekoa saltokiko langile kopuruaren arabera ezarriko dute, irizpide hauen arabera: 1 eta 9 langile bitarteko establezimenduak, 4.000 euro; eta 10 edo langile gehiagoko establezimenduak, 4.500 euro. Elgoibar, Eibar, Ermua, Sorluze eta Mendaroko dendek Eibarko Merkataritza Bulego Teknikora jo behar dute, martxoaren 26a baino lehen, 943 206 669 edo 943 254 083 telefono zenbakietara deituta.

Kafe-kapsula erabiliak mini garbiguneetan laga ahal izango dira aurrerantzean

Orain arte, erabilitako kafe kapsulak errefusaren edukiontzi grisean botatzen ziren eta ez ziren birziklatzen, baina aurrerantzean, mini garbiguneetan laga ahal izango dira, Debabarreneko Mankomunitateak eta Nestlé enpresak sinatu duten akordioari esker. Eskualdean dauden hamabi mini garbiguneek bi konpartimentu izango dituzte kafe-kapsulak lagatzeko: bat aluminiozko kapsuletarako eta bestea plastikozkoetarako. Konpartimentuak betetzen direnean, Mankomunitateko beharginek kapsulak garbiguneetara eramango dituzte, eta Nestlé enpresaren esku geratuko dira ondoren. Kapsulak zuzenean garbigunera eramateko aukera ere badago. Mankomunitateetik jakinarazi dute berrikuntza honek ez duela kosturik izango Mankomunitatearentzat. Akordioak lau urteko iraupena du, luzatzeko aukerarekin.



Hainbat eragilek Arartekoari idatziko diote anbulategiko ordutegia lehengora bueltatzeko eskatuz

Elgoibarko pentsiodunen mugimenduak eta Gaurgeroa Duintasunak atxikimenduak bilduko dituzte Elgoibarko eragile sindikal eta sozialekin, Arartekoari anbulatorioaren ordutegia luzatzeko erreklamazioa helarazteko. Martxoaren 1ean Kalegoen plazan egindako batzarrean hartu zuten erabakia, gehiengoz. Adostu zuten herritarren eta administrazioaren arteko auziak ebazten dituen Arartekoari, bidaltzea elgoibartarren eskaria. Era berean, anbulatorioaren ordutegia luzatzeari buruzko adostasunak bilatzea erabaki zuten Elgoibarko eragile sindikal eta sozialekin. Horrez gain, Elgoibarko EAJ eta PSE-EEren jarrera kritikatu dute: "Pozik hartu genuen Elgoibarko alderdi politikoak anbulatorioarekin Elgoibarren dugun akats larria konpontzeko lanean hasi zireneko albistea, baina EAJk eta PSE-EEK uko egin diote Osakidetzako zuzendaritzari Elgoibarko anbulatorioan arreta iraunkorreko eta larrialdietako zerbitzua ezartzeko eskatzeari. Elgoibarko Pentsiodunen eta Elgoibarko Gaurgeroa-Duintasuna mugimenduan, biziki deitoratzen dugu EAJren eta PSE-EEren jarrera". Esan dute mila erreklamazio orri baino gehiago aurkeztu zituztela anbulategian ordutegia zabaltzeko eskatuz, eta mozioa ere aurkeztu zutela Udalean, baina EAJk eta PSE-EEK ez dutela herritar horien ahotsa entzun: "Ez da onargarria Elgoibarko herritarren interesak defendatzen dituzten bi alderdik goragoko organoen interesen alde egitea". Baina Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak eta Gaurgeroa-Duintasunak esan dute ez dutela amore emango, uste dutelako eskatzen ari direna "bidezkoa eta beharrezkoa" dela elgoibartarrentzat.

Herrigunea eta Mendaroko Ospitalea lotzeko igogailua urteko bigarren seihilekoan eraikitzen hasi nahi du Udalak



Mendaro Ospitalerainoko irisgarritasuna hobetzeko igogailu publikoa eraikiko du Mendaroko Udalak, eta lanak 2021eko bigarren seihilekoan hasita aurreikusten dute. Zehazki, bi igogailu eraikiko dituzte. "Igogailu honek 27 metro inguruko desnibela lotzea da asmoa, horretarako bi igogailu eraikiz: Kilimon etorbidetik Andoneikua etorbidera bata eta bertatik ospitalera bestea. Era berean, tartean ere beste geldiune bat egitea aurreikusi da, hain zuzen kirol gunean, eremu hori ere erdigunearekin lotuz", azaldu dute udal arduradunek. Mendaroko Udalak 93.000 euroko diru partida onartu zuen igogailuaren proiekturako 2021eko udal aurrekontuetan.

1.200 euroko dirulaguntza zuzena eta zaborren eta terrazen tasetan hobariak emango dizkie Elgoibarko Udalak ostalariei

Elgoibarko Udalak 2021eko aurrekontuetan 120.000 euroko partida erreserbatu zuen, Covid-19aren eragina arintzeko hiri ekonomian, eta aurreratu zuen diru hori "beharren arabera" erabiliko zuela. Bada, erabaki dute diru hori nora bideratu, eta diru horri beste 115.000 euro gehitu behar zaizkio, tasan hobarien bidez emango dituztenak:

- Dirulaguntza zuzenak: 1.200€ ostalaritza establezimendu bakoitzeko. Udala ebazpen oinarriak lantzen ari da eta apirilerako martxan jartzea aurreikusten dute.
- Zaborren eta terrazen tasetan %50eko hobaria.
- Bono kanpaina berria udaberrian. Merkatariekin xehetasunak lotzen ari da Udala une honetan.
- Zaborren tasan %50eko hobaria merkatariei.



Honekin batera, Udalak gogoratu du iaz 300.000 euro bideratu zituela hiri ekonomia suspertzera. Horrez gain, Elgoibarko Udalak 2020an jarri zuen abian ElgoibarKlik, Txantxakua eta Den-

dartean merkatariekin elkarlanean, eta une honetan herriko 100 bat establezimenduk erabiltzen dute. Udalak 59.000 euro inbertitu ditu plataforma horretan.

Aisialdiko begirale titulua euskaraz ateratzeko dirulaguntzak emango ditu Mendaroko Udalak

Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale Titulua euskaraz ateratzeko dirulaguntzak emango ditu Mendaroko Udaleko Euskara sailak. Matrikularen kostuaren %50eko dirulaguntza emango dute, gehienez 250 euro, eta bidaia gastuak ez dituzte diruz lagunduko. Dirulaguntzak eskuratzeko ezinbestekoa da Mendaron errolatuta egotea ikastaroa hasi baino 12 hilabete lehenagotik eta Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izatea. Interesatuak 18 urtetik gora izan beharko dute, edo matrikulazio urtearen barruan bete beharko dituzte 18 urte. Irailaren 15era arteko epea dago eskaerak aurkezteko.

Zuhaitzak landatuko dituzte bihar, Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, 300 haritz eta pago arbola landatuko dituzte bihar Txixirrika baserri ondoko lurretan, Etxabe azpian. Herriko Enparantzan bilduko dira, 9:30ean, eta oinez igoko dira gora, mojen bideetik. Udaletik jakinarazi dute irten aurretik, brigadako ibilgailuan sartu ahal izango dituztela motxilak hala nahi duten hurrek, gorako bidea pisurik gabe egiteko. Ekimena Udalak antolatu du, baina Arno Guraso Elkartearen laguntza izango du. Izena emateko: ekintzakarno@gmail.com

Bizikidetza Jardunaldiak, datorren astean Elgoibarren

Udaleko Bizikidetza Mahaiak *Bizikidetza eraiten* jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako Herritarren Bizikidetza Foroarekin elkarlanean. Martxoaren 16an *Zubiak* dokumentala emango dute, 19:00etan Kultur Etxean. 19 urteren ondoren, Maixabel Lasa eta Ibon Etxezarreta (Maixabelen senarraren heriotzan parte-hartu zuen ETAko kidea) elkarrekin gastronomiko batean elkartuko dira, eta senarra hiltzeko argudioak ulertzen saiatuko da. Martxoaren 18an, bestalde, giza eskubideen urraketen biktimen aitortza eta erreparazioaren legearen inguruko hitzaldia eskainiko dute Laura Pego Oterok (Kriminologiaren Euskal Institutuko kidea) eta Ana Isabel Perez Machiok (Zuzenbide penalaren katedraduna). 19:00etan izango da saioa, musika eskolan.



1959

Begoña Aranberrik lagatakoa da gaur orrialde honetara ekarri dugun erretratu zaharra. 1959ko uztailaren 26an, Santa Ana egunez, Garagartzan ateratako argazkia da. Hiru emakume ageri dira argazkian, mozorrotuta, tartean Begoña Aranberri bera, inude jantzita. Jesusita Iriondoren izeba baten inude edo haurtzain jantzia darama Aranberrik, baina burugainekoa amak etxean josi ziola zehaztu du. **Zutik:** Juanita Ulazia, Jesusita Iriondo eta Begoña Aranberri.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



BARREN



Xabier Hernandez, Ane Moreno eta Andrea Cerezo.

Euskara suspertzeko ahalegina

Langileen arteko hizkuntza-ohiturak euskalduntzeko ahaleginean dihardu Osakidetzak azkeneko lau urtean, Soziolinguistika Klusterrarekin lankidetzan, eta asmo horrekin abiarazitako Aldahitz egitasmoaren bi metodologia jarri dituzte martxan Debabarreneko ESIn: Eusle eta Ulerrizketa. Azken horren adibide bat ekarri dugu gaur hona. Elgoibarko pediatria saileko langileek bertatik bertara ezagutu ahal izan dutelako. 2021eko urtarrilean bukatu zuten bi hilabete iraun zuen esperientzia eta emaitza igarri-igarrikoa dela nabarmendu dute parte-hartzaileek: gaur, euskara gehiago egiten dute euren artean.

-AINARA ARGOITIA-

Medikua, ona ala euskalduna?. Galdera gaiztoa da, tranpatia, mediku ona eta euskalduna izatea batera ezin balira bezala aurkezten dituelako, pertsona bakkarrantzat jakintza gehiegi balitz bezala medikuntza eta euskara jakitea. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundetik sarri azpimarratu izan duten bezala, gaixoak bere osasuna arriskuan ikustearen beldurraz baliatzen dira galdera hori egiten dutenak, euskarari prestigioa kentzeko eta mediku euskaldunen beharra zalantzan jartzeko. Baina mediku onak eta euskaldunak badaude, asko, eta zorionez, gero eta gehiago gainera. Eta gaur, inork gutxik jartzen du zalantzan pazientearen hizkuntza jakitea oso lotua dagoela kalitatezko zerbitzua eskaintzearekin. Hala jasota dauka Osakidetzak berak ere, Bigarren Euskara Planean, eta hala nabarmendu du Garbiñe Garaik Debabarreneko ESiko Euskara teknikariak ere. Eta zerbitzua hobetzeko ahalegin horretan, Soziolinguistika Klusterrarekin lankidetzan ari da Osakidetzak azkeneko urteotan.

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko abiatu zuen Soziolinguistika Klusterrak Aldahitz izeneko proiektua, eta 2012az gozotik, hiru me-

todologia sortu dituzte egitasmo horren harira: Eusle, Ulerrizketa eta Uler-saioak. Lehenengo bi metodologiak aspalditik daude martxan hainbat enpresa eta instituziotan, baina Uler-saioa metodologia geroagokoa da eta proba-fasean dago. Osakidetzak, nolanki ere, 2018an ekin zion Soziolinguistika Klusterrarekin batera Aldahitz proiektua nola aplikatu aztertzen, Osakidetzaren ezaugarriek ez zutelako erraza egiten metodologia hauen aplikazioa. Enpresaren beraren tamaina eta lantaldeetan langile mugimendu handia izateak zailtzen zuen metodologiak praktikan jartzea, Garbiñe Garaik azaldu duenez, baina hala ere, abiatu zituzten lau esperientzia pilotu. Eusle metodologia jarri zuten praktikan lau esperientzia horietan.

Harreman natural batean euskararen erabilera errazteko borondatezko esperientzia da Eusle esperientzia eta bi baldintza behar dira praktikan jartzeko: lantalde bateko kide guztiek euskara ulertzea eta taldekideen %80 ariketan parte hartzeko prest egotea. "Gehiengoaren adostasunik gabe ezin da abiatu". Metodologiaren ardatza, berriz, euslea da, euskaraz egiteko erraztasun eta joera handiena daukan taldekidea, gainerakoen hizkuntza-ohitu-

retan eragingo duena. Taldekideek eurek aukeratu behar izaten dituzte euren taldetik ze bik beteko duten eusle funtzioa. Hau da, taldeak izendatu behar ditu eusleak, eta horiek euskaraz berba egingo diete beti gainerako lankideei. Eusleak beti egin beharko du euskaraz, beraz, baina gainerako lankideek ez dute zertan, nahiz eta konpromisoa hartuko duten ahal duten guztian eusleari euskaraz egiteko.

Lau esperientzia pilotu haien ondotik, 2019an jarri zuten martxan metodologia hau Debabarrenako ESiko pertsonaleko sailean, 11 lagunekoa lantalde batean. Bi hilabete iraun zituen ariketak, eta bi txandatan egin zuten: 2019ko urriaren 21etik azaroaren 15era, eta urte bereko azaroaren 18tik abendura. Lehenengo txandaren ostean, aldatu egin zituzten eusleak, eta astero, jarraipen-fitxa bat bete zuten parte-hartzaileek, eusleek euren eginberrara ondo bete zuten baloratzeko. Bi hilabeteko esperientzia bukatu eta hiru hilabetera neurtu zuten langileek eurek euren arteko elkarrizketetan zein hizkuntzatan ari ziren eta balorazio positiboa egin zuten. "Emaitzen azterketa zehatzik ez daukagu momentuz, baina balorazio positiboa egin zuten langileek, eta esan zuten gehiago egiten zutela euskaraz euren artean", zehaztu du Garaik.

Osakidetzaren beraren ezaugarriei erreparatuta, Biko Eusle izeneko metodologia ere sortu zuen Soziolinguistika klusterrak 2019an. Eusleren aldaera bat da Biko Eusle; berba egiteko ondo moldatzen diren arren, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten bi-hiru lankideren artean egiteko ariketa. Urte berean, Ulerrizketa metodologia aplikatzeari ere ekin zioten osasun-alorrean.

Ulerrizketa

Aurreko bi egoeretan parte-hartzaileek ez zuten euskaraz ulertzeko zailtasunik, baina euskara ulermen apalagoa zuten lantaldeetarako beste zerbait asmatu beharra zegoela jabetu ziren eta hala sortu zuten Ulerrizketa metodologia Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Helburua garbia zen: euskara ulertzeko zailtasunak zituzten hiztunen ulermen gaitasuna hobetzea eta horrelako egoeretan erdaraz aritzeko joera izan ohi duten euskaldunek euskara gehiago egitea. Ulertzaileak dira batzuk, euskaraz dena ulertzeko gai ez diren arren euskararekiko jarrera positiboa dutenak, eta mintzatzaileak dira besteak, euskaldunak. Bi metodologiak emaitza ona izan zuten aplikatu zituzten lekuetan eta horregatik, esperientzia gehiago jarri zituzten martxan, tartean Elgoibarko ambulatorioko pediatria sailean. "Ikusi genuen euskararen erabilera bultzatzeko beharra zegoela eta ematen zirela baldintzak Ulerrizketa metodologia aplikatzeko, besteak beste hor geneukalako, batetik, Xabier Hernandez pediatria, euskara ikasten ari zena eta oso jarrera ona zeukana euskararekiko, eta bestetik, hor geneuzkalako Ane Moreno erizaina eta Andrea Cerezo pediatria, biak ere euskaldunak, eta biak ere ariketan parte hartzeko prest zeudenak. Eta horri gehitu Elgoibar herri euskalduna dela", aipatu du Garaik.

Talde naturala osatzen dute Xabier Hernandez eta Andrea Cerezo pediatrik eta Ane Moreno haur-erizainak. Pediatria saileko



ANE MORENO, Erizaina

Etxetik da euskalduna Ane Moreno eta euskara da bere lehen hizkuntza egunerokoan. Esperientzia honetan mintzatzaile rola jokatu du.

"Ondoan Xabi bezalako jendea izateak asko errazten du dena. Uste baino errazagoa egin zait"

◆ Zein hizkuntza erabiltzen zenuten nagusiki kontsultan ariketa honetan parte hartu aurretik? Igarri al duzu al daketarik?

Ni euskalduna naiz eta ohitura daukat pazienteei behintzat lehenengo berba euskaraz egiteko, baina egia da Xabirekin, adibidez, %99 erdaraz egiten nuela lehen, eta orain, horri buelta eman diogula. Euskara ikasi nahi zuela eta mesedez euskaraz egiteko eskatu zigun Xabik, eta primeran iruditu zitzaigun guri: Guretzat ez zen lana, eta bearentzat laguntza handia zen guk euskaraz egitea. Egia da batzuetan, erdarara jotzen dudala oraindik ere oharkabean, baina esan dezaket ia dena euskaraz egiten dugula orain gure artean.

◆ Erraz eutsi al diozu zure rolari?

Uste baino errazago, egia esan. Nik uste dut ondoan Xabi bezalako bat izateak ere asko errazten duela. Sonia [beste pediatria] eta ni euskaldunak gara, eta Xabik oso jarrera ona dauka euskararekiko. Ulermen maila ere handia du. Sonia eta nire arteko euskara ez da batua, ez da euskaltegian ikasten dutena, baina hala ere, Xabik dena ulertzen digu. Bestalde, hona datozen familia gehienek ere euskaraz egiten dute eta bada beste kontu bat ere aipatzekoa, askotan ahazten duguna. Atzerritarren ume askok ere euskaraz egiten dute. Askok ez dakite gaztelaniaz. Etxeko hizkuntza edo euskara egiten dute. Nik uste dut osasun alorrean oso garrantzitsua dela pazienteak bere hizkuntzan jasotzea arreta, eta hemen, pediatrian, zer esanik ez. Igartzen da, adibidez, euskaldun jendeak eskertzen duela medikuak euskaraz egiten dionean. 11:00etan etortzen da Xabi euskaltegitik kontsultara eta ordura arte beste pediatria bat egoten da bere ordean. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait pazienteak etorri eta Xabiri buruz galdezka hastea eta halakotan esaten diedanean euskara ikasten ari dela, oso gustura hartzen dute.

◆ Zu gaur bazoaz, baina nola irudikatzen duzu euskararen etorkizuna unitate honetan?

Momentuan ondo. Datorren jendearen arabera izango da hori, baina etorri direnek eutsiko diote.

langileak dira, eta bi hilabete egin dituzte esperimentuan. Cerezok eta Morenok ez dute inolako arazorik euskaraz ulertzeko eta berba egiteko, eta metodologiarekin hasi baino lehen ere, euskaraz egiten zioten elkarri, "ia beti". Xabierrek, baina, zailtasun handiagoa du euskaraz berba egiteko, baina ikasteko "gogo bizia". "Osakidetzak euskara ikasteko ikastaroak ordaintzen dizkie langileei eta liberazioak ere eskaintzen ditu. Garai batean gehiago ematen zituen, errazagoa zelako ordezkook topatzea, baina gaur egun sail batzuetarako ordezkook lortzea oso zaila da, eta pediatria da sail horietako bat. Oso pediatra gutxi daude, eta euskaldunak gutxiago. Baina Xabier bere kasa hasi zen euskara ikasten, dirulaguntzarik eta liberaziorik eskatu gabe; bere kabuz atera zuen lehenengo eskakizuna, eta behin hori eginda, liberazioa eskatu zuen ikasten jarraitzeko. Xabier oso kontziente da pazientearen hizkuntza ezagutzea oso garrantzitsua dela kalitatezko zerbitzua emateko". Gaur bi orduz

liberatuta dago Hernandez, lehenengo orduan euskara eskolak jasotzeko.

Joan zen urrian hasi zuten ariketa hiru lagun horiek. Formakuntza txiki bat jaso zuten lehenengo azaroaren 4an bide telematikotik, eta bigarren bat jaso zuten handik astebetera, Elgoibarko anbulatorioan bertan, Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterrereko ordezkariaren eta Garbiñe Garairen eskutik. Bi formazio horien ostean erabaki zuten esperientzia abiaraztea eta konpromisoa hartu zuten bi hilabetez eustekoa. Xabierrek ulertzailearen rola hartu zuen [Euskaraldia ariketako Belarriprest rolaren parekoa] eta Moreno eta Cerezok mintzatzaileen rola hartu zuten [Ahobizi rolaren parekoa]. "Adibide praktikoekin azaldu genien nola jokatu behar zuten. Eguneroko gai bat hartu eta Xabierrekin euskaraz hizketan jarri genituen mintzatzaileak eta azaldu genien nola jokatu behar zuten Xabierrek zerbait ulertzen ez zientean, nola egin behar zuten azalpena beste modu batean emateko, ziurtatzeko



ANDREA CEREZO, Pediatra

"Lanetik kanpora ere euskaraz egiten dugu orain Xabierrek eta biok, lehen ez bezala"

Euskalduna da Andrea Cerezo eta Ulerrizketa esperientziak iraun zituen bi hilabeteetan mintzatzailearen rola jokatu zuen, Euskaraldiko Ahobiziren parekoa.

◆ **Nolakoa da Elgoibarko anbulatorioko pediatria saileko hizkuntza-egoera?**

Nik esango nuke oso euskalduna dela. Ume denek dakite euskaraz eta ziurrenik kalean erdaraz bizi diren guraso askok ere umeei euskaraz egiten diete hemen.

◆ **Nola moldatu zara ariketa honetan?**

Anek esan duen bezala, uste baino errazagoa egin zait, egia esan. Baneukan kezka halako bat, nik aspalditik ezagutzen nuelako Xabier, eta gaztelaniaz harremantzen ginelako gu. Erdaraz ezagutu nuen, eta gure arteko hizkuntza-ohitura hori aldatzea zaila egingo zitzaidala pentsatzen nuen, baina egia da nahikoa erraza egin zaidala. Hiru langileko talde batean, bi, Ane eta biok, euskaldunak gara, eta guk gure artean euskaraz egiten genuen lehen ere normalean. Xabierrek, berriaz, oso jarrera ona izan du beti. Bagenekien euskara ikasten ari zela, berak eskatu zigulako euskaraz egitea. Eta kostatzen zitzaidana ez zen horrenbeste lehenengo hitza berari euskaraz egitea, baizik eta berak erdaraz erantzuten zidanean nik euskarari eustea. Baina Xabierrek berak asko lagundu dit horretan. Ulermenean maila handia dauka, eta gauzak birritan errepikatu behar ez izateak edo motelago hitz egin behar ez izateak asko errazten digu guri.

◆ **Osakidetzaren ezaugarriek ez dute erraza egiten era honetako metodologiak aplikatzea. Ariketan lagun izan ditu-**

zun biek aurki utziko dute anbulatorioa eta zu geldituko zara hemen, Andrea. Zer duzu esateko honen inguruan? Ardura sentitzen duzu?

Bai, arazo hori hemen dago batez ere, ospitaleetan jendea ez delako horrenbeste aldatzen. Dena den, etorri diren berriek badakite euskaraz, beraz nik uste dut eusteko gai izango gara. Nik uste dut taldeko giroari oso lotua dagoela hau ere, eta talde-giro on batean erraz egiten diren kontuak direla hauek. Baina bai, hemengo ezaugarriek ez dute beti erraza egiten halako metodologiei denboran eustea. Batetik dago, hori, mugimendu handia izaten dela langileen artean, eta bestetik dago lan-bolumena eta hari lotutako denbora-falta. Ulertzaileak ulermen maila handia baldin badauka, Xabierren kasuan moduan, ez dago horrenbesteko arazorik, baina bestela, presaka bagabiltza eta ikusten badugu parean duzunak ez dizula ulertzen, errazago jotzen dugu erdarara.

◆ **Zer nabarmenduko zenuke esperientzia honetatik? Lorpen handiena zein izan dela uste duzu?**

Gu hiruron balorazioa oso positiboa da, eta hala esan genien joan zen astean arduradunei ere. Bi hilabeteko esperimendua zen berez, eta formazio-saioan oso garbi utzi ziguten anbulatoriora mugatzen zen zerbait zela, baina egia da Xabierrek eta biok, hemendik kanpora ere euskaraz egiten dugula orain, lehen ez bezala. Hori ere irabazi dugu.

Xabierrek ulertzen zituela. Azken batean erremintak eskaini genizkien”, zehaztu du Garaik. Behar baino formazio laburragoa izan zela aitortu du hori bai, profesionalak oso lotuak dituztelako agendak, baina nabarmendu du borondatea eta jarrera ona dau den lekuan dena dela errazagoa, eta horixe izan zela Elgoibarko kasua. “Berez, Xabier ez zegoen derrigortuta Aneri eta Andreari euskaraz hitz egitera, metodologia honetan helburua ulermena hobetzea delako, baina bai Ane eta Andrea Xabierri euskaraz egitera. Xabierren papera azpimarratzekoa da, baina baita Ane eta Andrearena ere, badakigulako euskaldunok zein erraz aldatzen dugun erdarara parean duguna kostata ari dela igartzen dugunean”. Gainditu beharreko beste erronka bat ere bazen, baina gure hiru protagonistetako biren artean. Xabierrek eta Andreak aspalditik ezagutzen zuten elkar. Erdaraz ezagutu zuten, baina, elkar, eta elkarren hizkuntza gaitasunen eta hautuen berri bazuten arren, ez zitzairen batere erraza hizkuntza-ohitura hori

aldatzea. “Eta gainditu dute. Eta nik, euskara teknikari moduan, horixe azpimarratu nahiko nuke: posible dela hizkuntza-ohiturak aldatzea”.

Pozik daude arduradunak zein protagonistak, eta Elgoibarko anbulatorioko esperientzia Debabarreneko osasun-alorreko beste zeinbat espaziotan errepikatzeko modukoa ikusten dute guztiek. “2019ko abenduan amaitu genuen eusle esperientzia hau pertsonalean eta 2020ko otsailean buru-belarri ari ginen Euskaraldiko aurkezpenak-eta prestatzen, baina iritsi zen martxoa, iritsi zen pandemia, eta akabo ordura arteko gure ahaleginak! Osakidetza berez da enpresa konplikatu halakoak martxan jartzeko, langileen mugikortasun handia dagoelako eta zer esanik ez pandemia betean”. Baina ez daude eskuak gurutzatuta gelditzeko. Euskararen zeharkakotasuna indartzea dute helburu Euskara Sailean, eta ahalegin betean ari dira. Egin berri dute, esaterako, Bigarren Euskararen Planaren balorazioa eta pozik daude emaitzarekin.



XABIER HERNANDEZ, Pediatra

“Garbi daukat pazienteen hizkuntza ezagutzea garrantzitsua dela ahalik eta zerbitzurik onena eta gertukoena emateko”

Euskara eskolak jasotzen ari da Xabier Hernandez eta Euskaraldia ariketa sozialean Belarriprest izan zen. Ulertu, ulertzen du, “ia dena”, baina hitz egiteko erraztasunik ez du. Hala ere, euskaraz erantzun die gure galderari.

◆ Ze harreman daukazu zuk euskararekin Xabier?

Ez naiz euskalduna, baina euskaldundu nahi nuke. Sopena naiz ni, baina gure etxean ez da euskaraz egin sekula, eta emaztea Zaragozako da. Eskolan ikasitakoa dakit, baina gutxi. Orain ari naiz euskara ikasten. 2 urte pasatxoko eta 5 urteko bi umeren aita naiz, eta nahi nuke haiek euskaraz egitea. Pediatra ere banaiz eta garbi daukat pazienteen hizkuntza ezagutzea garrantzitsua dela ahalik eta zerbitzurik onena edo gertukoena emateko eta konturatuta nago, gainera, Elgoibar oso herri euskalduna dela. Hemen, bertakoek euskaraz egiten dute kontsultan, baina atzeritarren umeek ere bai.

Euskarazko lehen eskakizuna atera dut, nire kabuz, eta orain, liberatuta nago euskara ikasteko. Bi orduko liberazioa daukat, goizetan euskaltegira joateko euskara ikastera. Gustatzen zait euskara eta gustatzen zaidalako ikasi nahi dut. Ni bizi naiteke hemen erdaraz, lan egin dezaket erdaraz, baina ikasi nahi dut, nahi dudalako noizbait nik eta nire semeek euskaraz ondo egitea. Oso gustura ari naiz, baina ez dakit zenbat aurreratuko dudan, datorren urtean Ingalaterrara noalako bizitzera. Eten handia izango da ikaste prozesuan, baina erabarteko etena izan ez dadin han ere ikasten jarraitu nahi nuke. Nola egingo dudan ez dakit, baina umeekin euskaraz egiten jarraitzeko asmoa daukat, eta handik bueltan euskara eskolara itzuliko naiz. Eta nahi nuke hona itzuli ere. Ni gustura etor-

itzen naiz Sopenatik hona; hemen jendea jatorra da, eta harremanak gertukoagoak dira Bilbo aldean baino.

◆ Nola moldatu zara ariketa honetan?

Ondo. Nire rola betetzea erraza izan zait. Zailagoa izan dute nire lankideek, seguru. Nik baino ahalegin handiagoa egin behar izan dute txipa aldatzeko. Benetako meritua hauena da. Nik euskaraz egiten diedanean euskaraz erantzutea ez zaie beharbada hain zaila egingo, baina nik erdarara jotzen dudanean esan beharreko hori euskaraz esateko gai ez naizenez, beraiek euskarari eutsi behar diote. Eta hori ez da erraza. Egia da, baina, euskara gehiago egiten dugula orain eta horregatik balorazio positiboa egiten dut nik ariketaz. Egia da oraindik ez naizela gai osasun azalpen asko euskaraz emateko, eta azaltzeko zailak zaizkidan gauza inportanteak esan behar ditudanean erdarara jotzen dudala, pazienteek ondo ulertzeko, baina bai, gure artean behintzat orain gehiena euskaraz egiten dugu.

◆ Pazienteek eskertzen dute zuk euskaraz egitea?

Bai, asko gainera.

◆ Euskaraldian ere parte hartu zenuen. Zer balorazio egiten duzu?

Oso ona. Bai hemen eta baita ni bizi naizen herrian ere, Sopenan, oso lagungarria izan zitzaidan Euskaraldia, euskara gehiago entzuteko.



“Venezia turistikotik harago dagoen hiria erakutsi nahi izan dut”

► **ESMERALDA ZAPPAROLI** ARGAZKILARIA

Martxoaren 8aren harira, Esmeralda Zapparoliren (Londres, 1970) 'Esencia' argazki erakusketa antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak, eta hilaren 16tik 30era egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Veneziako erretratuak jarriko ditu ikusgai Zapparolik, baina ez dira izango Veneziari buruz ikustera ohituta gauden irudiak. Veneziako esentzia jaso du argazkilariak bere kamerarekin eta hori erakutsi nahi du, hau da, turismoko gidetan agertzen ez den Venezia.

◆ Zergatik aukeratu duzu Venezia?

Nire aitaren familia Italiakoa da, Paduakoak dira, Veneziaatik nahiko gertu dagoen hiri batekoak. Bisitan joaten nintzenean aprobetxatzen nuen argazkiak egiteko. Udan joaten nintzen bereziki, baina lana osatzeko bidaia asko egin behar izan nituen. Baina egia da arrazoi horrekin beste edozein hiri ere aukeratu nezakeela, baina nik Venezia aukeratu nuen, bereziki, hiriaren lasaitasuna gustatzen zitzaidalako. Hiria oso aberatsa da kultura eta arteari dagokionez eta horrek izugarri inspiratzen ninduen, baina horrez gain, kaleetan zehar ibiltzerakoan entzuten diren zurrumurruek gustatzen zitzaizkidan. Hizketan aritzen diren bizilagunenak edo langileenak... Beste hiri batzuetan autoen edo

kamioien bozinak entzuten dira nonahi, baina Venezia, zona turistikotik aldentuta, oso lasaia da, eta etengabe entzuten den uraren soinuak ere patxada transmititzen du. Turismo guneetan zarata handia egoten da, baina bestela, hiri lasaia da, eta hori izugarri gustatzen zait.

◆ Zenbat denbora behar izan zenuen lana osatzeko?

Urteetako lana izan zen. 2012an amaitu nuen, baina askoz lehenago hasi nintzen lanean. Venezia ez daukat esku-eskura, eta ezin nuen nahi beste aldiz joan. Joaten nintzen bakoitzean zonalde bat eta gai konkritu bat aukeratzen nuen argazkiak egiteko. Nire buruan neuzkan gai guztiak jaso arte jardun nuen hara bueltara. Argitasuna ere oso desberdina da urtarorekin arabera, eta egunsentiko behelainoarekin argazki bat ezin duzu abuztuan atera, esate baterako. Edo ur handiak harrapatu nahi badituzu ere sasoi jakin batean joan behar duzu. Horrelako lan batek denbora eskatzen du. Gaur egun ohituta gaude dena atzorako eskatzen; prisaka bizi gara eta lan guztiak berehala jaso nahi ditugu, baina gure lan egiteko modua oso bestelakoa da.

◆ 'Esencia' jarri diozu izena. Zer erakutsiko duzu lan honekin?

Lan hau aurrez ere erakutsita daukat Elgoibarren, Donostian eta beste leku batzuetan ere. Dena dela, lehenengo aldian erakutsi ez nituen zenbait argazki ere jarriko ditut oraingoan. Erretretuetan jaso dudana Veneziako esentzia da. Argazki hauek ez dira ikustera ohituta gauden Veneziako argazkiak, desberdinak dira. Ez naiz ibili Veneziako argazki tipikoen bila, horietatik harago jarri



“Asko irakurri dut Veneziari buruz, eta horrek asko lagundu dit argazkiak ateratzeko orduan”

dut begia, eta hiriaren esentzia bilatu dut. Ageri dira eraikinak, kanalak, gondolak, monumentu historikoak, plazak, Veneziako inauteria... hori guztia delako Venezia, baina beste modu batean jaso ditut, modu abstraktuago batean. Venezia turistikotik harago dagoen hiria erakutsi nahi izan dut. Oso lan pertsonala izan da niretzat. Venezian egon den jende askorentzat argazkiak arrotzak izango dira, turismo tipikoa egin dutenak konturatuko dira ez dutela Veneziako esentzia ezagutzen.

◆ Nola lortu duzu esentzia hori harrapatzea kamerarekin?

Asko irakurri dut Veneziari buruz, eta horrek asko lagundu dit. Ez dauka zerikusirik leku bati buruzko informazioa edukita edo leku hori ezagutu gabe argazkiak ateratzeko. Niri lagundu dit jakiteak Dante egon

zela eraikin batean, edo kale haietan ibili zela beste pertsonaia historikoren bat, edo han espetxeratu zutela ez dakit nor. Guzti horrek aberastu egiten zaitu, eta lekuak beste modu batean begiratzen laguntzen du. Bidaia horietan, gainera, jendea ezagutu nuen, eta haiek ere asko lagundu zidaten. Hango garraiolarekin, esaterako, denbora asko egin nuen. Han ez dago kamioilaririk, garrarioa barkoetan egiten da eta oso berezia da. Argazki batean jaso nuen erakusketa baterako zeramaten koadro bat barko batean. Artea eta barkoa irudi batean, Veneziako esentzia bete-betean, baina gondolarik ikusi gabe. Egonaldi bat ere egin nuen mojen eskola batean, eta beraiekin irteten nintzen pasiatzera, eta hiriko ontzioletan ere denbora pila bat pasatu nuen. Veneziako ontziolak oso garrantzitsuak izan dira historikoki, eta oso interesgarriak dira. Lanbide desberdinak ezagutu ditut, adibidez, gondolak nola egiten dituzten ikasi dut, eta ikaragarria da. Gondoleroaren arrauna kokatzen den mekanismoa, esaterako, gondola gidatuko duenaren tamainaren arabera egiten dute! Gondola batek, hamar pintura geruza behar izaten ditu. Izugarriko artisau lana dago gondola batean, baina jende askok gondolaren atzean taxi bat bakarrik ikusten du. Venezia inguruko irlak ere bisitatu nituen, Burano, Murano, Saint Giorgio... eta kanposantua bera ere bai. Kanposantua irla batean dago, irla bera da kanposantua eta banekien hango argazkiak ere behar nituela. Han ateratako argazki bat saritu zida-



ten orain dela urte batzek. Emakumea eta arkitektura uz-tartzen zituen lehiaketa bat zen, eta nik egindako argazkian ageri da emakumezko baten eskultura eta bere ilea huntza da. Horma batean dago eta huntzak estatua jan du, bere ilea dela dirudi.

◆ Nola moldatu zinen lan hau eta bizitza pertsonala uztartzeko?

Lana hasi nuenean ez neukan umerik eta errazagoa zen, baina hala ere, bidaiak prestatzea ez zen hain erraza. Mojen eskolan egonaldia egin nuenerako ama nintzen, eta ez zen erraza izan egonaldi hura, baina lana bukatzen ari nintzen eta ahalegin berezi bat egitea erabaki nuen. Gerora itzuli izan naiz berriro, nahi nuelako nire alabek Venezia ezagutzea, baina oso aldatuta dago. Esentzia galtzen ari da. Denda txikiak eta tabernak ixten ari dira, artisau asko desagertu dira... Jende askok alde egin du Veneziatik, ez delako erraza han bizitzea. Zubi asko ditu, eskailera asko... oztopo arkitektoniko asko dituen hiria da. Adinekoentzat ez da erraza han bizitzea, eta ume txikiekin ere kosta egiten da, karroarekin ibiltzeko oso deserosoa delako. Etxebizitza asko oso zahartuta daude, eta berritzeko zailtasunak jartzen ditu gobernuak. Ezin da edozein obra egin, eta gainera, dirutza handia behar da. Udan bero handia egiten du, neguan hotz, oso hezea da... ez da bizitzeko hiri erraza. Oso polita izaten jarraitzen du Venezia, baina nire argazkietan jaso dudana esentzia hori galtzen ari da.

◆ Nola hasi zinen argazkigintzan?

Umetatik artea edan dut etxean. Nire ama ere artista da. Es-maltea lantzen du, akuarelak egiten ditu eta eskultura ere izugarri gustatzen zaio. Amaren lagunak ere artistak ziren, eta sarri etortzen ziren gure etxera eskultoreak, margolariak, arkitektoak edo bestelakoak. Amaren erakusketak zaintzen ibiltzen nintzen, eta ko-

“Oso polita izaten jarraitzen du Venezia, baina esentzia galtzen ari da”

munikabideetara ere laguntzen nion. Gaur egun ere oso aktibo dago ama kulturgintzan. Madrilen

bizi da, eta ahal duen guztietan joaten da hitzaldietara, erakusketetara edo bestelakoetara. Aita ere argazkigintzan ibiltzen zen, eta etxean positibitzen zituen argazkiak. Ume nintzela aitari laguntzen nion laborategian, argazkiak errebelatzeko denborak zaintzen, esaterako. 16 urte nituela, Administraritza ikasten ari nintzen Bartzelonan eta amak bidali ninduen argazkilaritza eskola batera. Goizez administraritza ikasten nuen, eta arratsaldean, argazkilaritza. Etxean betidanik izan dugu kultura eta arterako zale-tasuna. Londresen jaio banintzen ere, ume nintzela lekualdatu ginen Bartzelonara eta han hasi nintzen argazkilaritza ikasten. Hiru urteko ikasketak egin nituen Bartzelonako argazkilaritza institutuan, eta han ezagutu nuen Edu [Edu Arrillaga argazkilaria da bere senarra], eta beragatik bizi naiz Elgoibarren. Nire ama Asturiaskoa da, amona Gasteizkoa eta amonaren ahizpa bat Eibarren bizi zen. Madrilen ere bizi izandakoa naiz, eta orain, Idorbeko baserri batean bizi naiz. Batetik bestera ibilitakoa naiz eta horrek kulturalki aberastu egiten du.

◆ Gaur egun zertan diharduzu?

Azken hiru urteetan argazkigintzan etena egin dut. Metalgintzari buruzko lana izan zen argazkilaritzan egin nuen azken lana, eta orain diseinu grafikoan aritzen naiz gehiago. Erakusketak honen katalogoa neuk diseinatu dut, eta asko zaindu dut estetika. Testua Juan Manuel Castro Prieto argazkilaria da, guretzako erreferentziako argazkilaria. Eduren azken liburuak ere neuk maketatu ditut. Argazkilaritzatik bizitzea oso zaila da, guri gustatzen zaigun moduko argazkilaritzatik bizitzea, esan nahi dut. Ni ibili nintzen publizitate agentzia batentzat lanean, baina hori ez zen nik nahi nuena. Guk egiten ditugun lanak guri gustatzen zaizkigunak dira, nahiz eta jakin gero zailtasunak

izango ditugula saltzeko. Une honetan nahiko geldirik nago, baina, ikasten jarraitzen dut. Sare sozialetan uneoro egoten naiz argazkilarien lanei begira. Besteen lanak ikusiz ere asko ikasten da.

♦ **16 urterekin hasi zinen argazkilaritzan. Nola aldatu da ordutik lanbidea?**

Ez dauka zerikusirik nik ikasi nuenarekin. Argazkilaritzak sekulako eboluzioa izan du, eta guk berarekin eboluzionatu behar izan dugu. Gaur egun dena da digitala, eta derrigorrean bada ere, gu ere digitalean ari gara, baina uste dut oinarri analogikoa dugunok medio gehiago ditugula digitala menperatzeko. Digitalean ikasi dutenek diseinu programak oso ondo menperatzen dituzte, baina ez horrenbeste argia edo lekuen aukeraketa. Ni umea nintzenean argazkilaria etortzen zen herrira tarteka argazkiak ateratzera, eta hura egun handia izaten zen. Gerora, argazkilaria beharrezko izatera pasatu zen, bere lana ezinbestekoa zelako alor askotan gauzak erakusteko, eta geroago gaizki ikusita ere egon zen. Eta, gaur egun, edonork egiten ditu argazkiak, hobeak edo txarragoak, baina sekulako saturazioa dago denean. Egia da argazki onak ikustea errazagoa dela gaur egun sare sozialei esker. Guk lehen liburuak eta aldizkariak erosten genituen argazkiak ikusteko, eta gaur egun sarean denetik dago. Telefonoarekin oso erraz atera-

tzen dira argazkiak, ez da karreterik behar, erraz borratzen dira argazkiak eta oso erraz zabaltzen dira baita ere. Baina hainbeste materialen artean iruditzen zait begiak galdu egin duela argazki txarrak diskriminatzeko gaitasuna. Ez dut esango edonork dela argazkilari, baina edonork egiten ditu argazkiak.

♦ **Argazkiak atera eta zabaltzeko erraztasunari, irudiak editatzeko programak gehitu zaizkio. Zenbat min eta zenbat onura ekarri diete programa horiek argazkilaritzari?**

Argazki txar bat hobetzen laguntzen dute programa horiek, baina argazki on batek ez du horrelakorik behar. Azken batean, baina, ona edo txarra oso subjektiboa da. Ikusleak argazki bat ikustean ez du pentsatzen horren atzean dagoen lana, hor dauden orduak, dagoen istorioa... berdin zaio. Ikusten du argazkia eta gustatzen zaio edo ez, ez dago besterik.

♦ **Martxoaren 8aren harira antolatu dute zure erakusketa. Argazkilaritzan ere zailagoa da lekua egitea emakume batenzat?**

Bai, lanbide gehienetan bezala. Argazkilaritza ikasten hasi nintzenean nahiko parekatua zegoela esango nuke, baina urteak pasa ahala, gutxiago gara emakumezkoak. Zailagoa da mundu

honetan mantentzea emakume izanda. Oro har, emakumeentzat artista izatea zailagoa da.

“Oro har, artista izatea zailagoa da emakumeentzat”





Pandemiak ez ditu isilarazi

Koronabirusak eragindako zailtasun guztien gainetik, kaleak morez jantzi ziren astelehenean. Herrien arteko muga perimetrala indarrean zegoen oraindik astelehenean, eta mugimendu feministak ez zuen eskualde mailako deialdirik egin, baina tokian-tokian ekintza ugari egin ziren. Elgoibarren, egun osoan zehar egon zen mikrofona zabalik Kalegoen plazan, herritarrek euren aldarrikapenak egiteko eta egun horretarako, adierazpen instituzionala adostu zuten gure bi udalek. Orriotan jaso ditugu M8ren bueltan antolatutako ekintzak.





Bakoitzak beria, Jangoikua(re)n legia:

Bakoitzak bereari kaso egin behar diola adierazteko, besteren gauzetan sartu gabe.

Mendaron euskarak zer osasun duen aztertuko dute gazteek gaur, Gaztelekuan

Euskaldunon arnasguneak eta udalerrri euskaldunak izenburuko tailerra antolatu du gazteentzat Mendaroko Udalak gaurko, UEMArekin lankidetzan. Gaztelekuan izango da tailerra, 18:30ean, eta Ibon Aginaga UEMAko teknika-

riak gidatuko du. Munduko hizkuntzen zerrendan, euskara non kokatzen den azalduko die Aginagak gazteei eta gogoetarako hainbat galdera egingo dizkie, euskararen garrantziaz eta handitasunaz ohartzeko. 'Mendaro udalerrri euskalduna da?' 'Nola ikusten dugu gazteek gure herriko euskararen egoera?' 'Zer ohitura dugu?' 'Zeintzuk dira herrian euskarari lotutako erreferenteak?' moduko galderei erantzungo diete gazteek, taldean. Era berean, 15 eta 18 urte arteko gazteentzako Salto topalekuen berri ere emango die Aginagak gazteei. Aurten ere ibiltaria izango da ekimen hori, eta Zumaia tik Lekeitiorako bidea egingo dute gazteek ekainaren 28tik uzta ilaren 4ra.



Kantagintzaren inguruko literatur saio musikatua eman dute Gotzon Barandiaranek eta Rafa Ruedak institutuan



*Hitzen ahaire*a saiakera liburuan oinarritutako literatur saio musikatua jaso zuten otsailan Elgoibarko BHIko bigarren batxilergoko ikasleek. Kantagintzaren inguruko gogoetak jaso zituen Gotzon Barandiaranek *Hitzen ahaire* liburuan (Susa, 2018), eta Barandiaran bera izan zen institutuko saioan, Rafa Rueda musikariak lagunduta.

Zeinu hizkuntzan oinarritutako kontzertua bihar Herriko Antzokian

Bukatu berri dute soundpainting ikastaroa Inazio Bereziartua musika eskolan. Zeinu hizkuntza bat da soundpaintinga, inprobisazio gidatua lantzeko erabiltzen den soinu hizkuntza, eta ikastaroan izena emandako hogeitaz lagunek hizkuntza hori ezagutzeko aukera izan dute bi saiotan, Aitor Nova gidari zutela. Ikastaroari azkena emateko, kontzertua antolatu du zapatarako Musika Eskolak Sinuö-sekoekin lankidetzan. Inprobisazio/esperimentazio saioa izango dela aurreratu dute. Aitor Novak zuzenduko ditu gazteak, eta Sinuö-sekoek ere parte hartuko dute. Kontzertua 12:30ean izango da, bihar, Herriko Antzokian.

Laguntzak, UEUko ikastaroetan parte hartzen dutenentzat

Elgoibarko Udalak diruz lagunduko die UEU Udako Euskal Unibertsitateak Eibarko, Iruñeko eta Gasteizko egoitzetan udaberrian eskainiko dituen ikastaroak egiten dituzten herritarrei. Udalak matrikularen erdia ordainduko die Elgoibarren erroldatutakoek. Ikastaro guztiak ikasleentzako homologatuak dira eta matrikulaldia zabaldu du dagoeneko UEUk. Informazio gehiagorako edo ikastaroren batean izena emateko bi aukera daude: online UEUren webgunean (www.ueu.eus) edo UEUren Eibarko, Iruñeko eta Gasteizko bulegoetan aurrez aurre.

'Elisa y Marcela' antzerkia taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian

A Panadeira antzerki talde gaziarraren eskutik iritsiko da Elgoibarrera *Elisa y Marcela* antzezlan. Espainian ezagutzen den bi emakumeren arteko lehen ezkontza du oinarrian obrak. 1901ean ezkondu ziren Elisa eta Marcela Coruñan, bietako bat gizonetzko jantzita. Identitate aldaketa, jazarpen poliziala ihesaldiak eta manipulazioa lantzen ditu antzezlanak. 19:00etan hasiko da ikuskizuna. Sarrerak Kutxabank bidez eskuratu daitezke aurrez, eta emanaldia hasi aurretik Herriko Antzokiko lehiatilan erosteko aukera ere egongo da.



Agortu dira Zea Mays ikusteko sarrerak

Zea Mays talde bilbotarrak bi kontzertu emango ditu martxoaren 19an Herriko Antzokian. Lehen emanaldia 17:00etan izango da, eta bigarrena, 19:30ean. Joan zen barikuan jarri zituzten sarrerak salgai, eta dagoeneko, agortu dira.



'Meri, Mari eta Lari' antzerkia, domekan

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan *Meri, Mari eta Lari* familia antzerkia ikusteko aukera egongo da domekan, hilaren 14an, Herriko Antzokian. Eidabe teatroa taldekoek taularatuko dute ikuskizuna. Meri haurdun dagoela, aspaldi ikusi gabeko Mari lagunarekin egingo du topo. Marik ez zekien Meri haurdun zegoenik, eta betiko galdera egingo dio: 'Neska ala mutila izango da?'. Galdera horren harira, norberaren identitatearen gaia landuko dute antzezlanean. 16:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak aurrez Kutxabank bidez erosi daitezke, edo egunean bertan lehiatilan.



Nahikari Alzibar eta Irene Rodriguez izan dira orri markagailuen lehiaketako irabazleak



Gotzon Garate Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du laugarren aldiz, eta aste honetan bertan jakinarazi dituzte irabazleen izenak. Usue Egia Egur eskolako irakasleak eta Gemma Monreal margolari elgoibartarrak osatu dute epaimahaia, eta bi hauen lanak aukeratu dituzte: Nahikari Alzibar (7 urte) eta Irene Rodriguez (14 urte). Guztira 605 lan aurkeztu zituzten lehiaketara eta epaimahai-koek aitortu zuten ez zela lan erraza izan bi aukeratzea, lan oso onak zeudelako.

C.D. Elgoibarko bost talde itzuliko dira lehiara asteburuan

Denboraldi berezi honetako lehen jardunaldia jokatuko dute C.D. Elgoibarko bost taldek asteburuan. Mintxetan jokatuko dute hiru taldek: ohorezko kadeteen taldeak Aretxabaletaren bisita jasoko du zapatuan (10:30); emakumeen talde nagusiak ere zapatuan jokatuko du, Irauli Bosteko taldearen aurka, 16:00etan. Lehen mailako jubenil taldeak domekan jokatuko du bere partida, 11:00etatik aurrera, eta Urola taldea izango dute aurkari. Ohorezko Jubenil Mailan diharduen C.D. Elgoibarrek taldeak Deban jokatuko du Amaikak Bat taldearen aurka, zapatuan. Lehen mailako kadeteek Azkoitian jokatuko dute, Anaitasunaren aurka. Talde horiek partida ofizialak jokatuko dituzte, baina aurtengoa ez da ohiko lehiaketa izango, besteak beste, ez delako jaitsierarik ez igoyerarik izango. Federazioak klubon esku laga du parte hartzea, eta talde bakoitzak erabaki du lehiara itzuli ala ez. Hori bai, infantil, alebin eta futbol eskolan diharduten taldeak ez dira lehiara itzuliko denboraldi honetan. Erregional mailako bigarren taldea ere ez da lehiara itzuliko, baina kasu honetan C.D. Elgoibarrek hala erabaki duelako. Hainbat jokalarik Haundin dihardute eta baldintza egokietan lehiatzeko zailtasunak izango zituztela ikusita ez dute izenik eman.

Haundik Mintxetan jokatuko duen zapatuan ligako hirugarren jardunaldiko partida. Debako Amaikak Bat taldea izan zuten



Arg.: Manu Sanchez

aurkari eta galtzen hasi baziren ere, partidari buelta eman eta 2-1 irabazi zuten. Eneko Basurtok sartu zuen etxeko lehen gola, penaltiz, eta Urreistik sartu zuen garaipenaren gola, 93. minutuan. Garaipen honi esker sailkapeneko bigarren postuan dago Haundi, sei punturekin, eta partida bat gutxiago jokatuta. Zoritxarrez, urrian jokatutako lehen jardunaldian Aloña Mendiri irabazita eskuratutako hiru puntuak galdu ditu. Izan ere, txapelketa lagatzea erabaki dute oñatiarrek, eta haien kontra lortutako emaitza ez da kontuan hartuko.

Kirol campusean izena emateko epea martxoaren 22ra arte dago zabalik

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak XII. Aste Santuko Kirol Campusa antolatu du, eta martxoaren 22ra arte egongo da izena emateko aukera. Kirol campusa honako egunetan egingo da: martxoaren 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 6an, 7an, 8an eta 9an. Ordutegiari dagokionez, 9:30etik 12:30era izango dira saioak. Egun horietan, hainbat kirol egiteko aukera izango dute ume eta gaztetxoek: atletismoa, tenisa, padela, mendi-irteerak, slackline-a, jarduera fisikoa, mendi bizikleta eta skate/surfskate. Taldeak gehienez hamabi hurrez osatuta egongo dira, eta kirol jarduera guztiak aire librean egingo dituzte, Covid 19aren aurkako segurtasun neurriak bermatuz. Ezinbestekoa izango da musukoa erabiltzea, segurtasun distantzia mantentzea, edota dagozkion higiene neurriak betetzea. Olaizaga kiroldegian eman behar da izena. Prezioa 44,50 eurokoa izango da Patronatuko bazkideentzat eta 49,50 eurokoa bazkide ez direnentzat.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Amaikak Bat 1 (Oho. Erreg.)

ESKUBALOA

San Adrian 32 – Gaurve Asesores 30 (Sen. emak.)

Helvetia Anaitasuna 35 – Alcorta F.G. 30 (Sen. giz.)

Eibar Eskubaloia 19 – Urkunde Elgoibar 38 (Kad. mut.)

Pulpo Eskubaloia 22 – Cimde Elgoibar 16 (Jub. nesk.)

Salento Gelati Elgoibar 21 – Bidasoa Irun 28 (Kad. nesk.)

Arilan Elgoibar 19 – Eibar Eskubaloia 32 (Sen. emak.)

Astigarraga GYS Sport 29 – Neurri Elgoibar 7 (Kad. nesk.)

Amenabar Zarautz ZKE 29 – Deca Elgoibar 25 (Jub. mut.)

C.B. Urola 28 – Pizzeria Salento 23 (Sen. giz.)

Agenda

ESKUBALOA (Olaizagan)

Zapatua, 13

19:00 Alcorta F.G. – Uharte (Senior giz.)



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Segun eta auzokidea zein izan, erabakitzen zuen igogailura sartzea edo ez sartzea, gazteagotan. Bestearen ondoan igo behar izaten zituen bi pisu, gertu bata bestearengandik. Leku txikia zen. Gertutasun hura zen batzuetan ekiditen zuena; beste batzuetan, berdin zitzaion. Aurpegira ez begiratzea erraza zen; esaten ziotena entzun arren, jaramonik ez egitea edo irribarre batekin erantzutea; eta bestea ez ukitzea, ere bai. Ezinezkoa zitzaion, ordea, pertsonen usaina ez hartzea. Pertsonarena berarena, haren perfume garestiarena, azalarena, edo igogailuan sartu aurretik egin zuenaren arrastoaren usaina: erre berri zuen zigarroarena, baserritik garbitu gabe zekartzan zapa-tena...

Hala ere, gustuko du pertsonak usainetik gogoratzea, usainek sentimenduak eragiten dizkiotela sentitzea. Denboran atzera eramaten dute usainek, sarri, oroitzapenetara, eta espazioan, leku

batetik bestera, bidaiari. Begiak itxi eta non dagoen jakin dezake usainetik.

Atsegin du itsasoaren usaina, portuan itsasontzien gasolinaren usainarekin nahasten den kresalarena; olatuen apar gainean bitsa, haitzen kontra labarrean; abakando usaina, eta jatetxeen kanpoaldean arranparrilan bisigua erretzen ari direnekoa. Ogi egin berriaren usaina, kafearena, txokolate beroarena, San Blas usaina. Belar moztu berriarena, loreena, eukaliptoena basoan, euria hasten duenean lurrari dariona, arropak eguzkitan lehortzen ari direneko garbi usaina.

Aitxixa gogoratzen duenean, ia beti aroztegiko eskailerak igotzen ditu bere irudimenean. Airean dabilen zerrautsak begiak lautotzen dizkio, ez dio ondo ikusten uzten, baina han dago, urdinez jantzita, urruti. Eta bertako usaina datorkio gogora, beti. Eta barruraino sartzen zaio, gorputz barruraino, bihotz barruraino. Usain gogokoenen artean du egurrarena. Egun, egur usaineko perfumeak ditu maiteen, oraino.

“... usainek sentimenduak eragiten dizkiotela sentitzea...”

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta portalak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Edozein lan egiteko prest nago. Malgutasun handia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest nago.

☎ 632 116 534

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, aste barruan. Ordu-tegi malgua daukat.

☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan. Berehala lanean hasteko moduan nago.

☎ 602 850 826

Adinekoak, umeak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Papelak legez ditut eta esperientzia daukat. Tabernan sukaldari laguntzaile moduan ere aritzeko prest. ☎ 666 197 831

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan eta asteburuetan lan egiteko prest nago. Papelak legez ditut, eta erreferentzia onak.

☎ 643 601 205

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat.

☎ 626 490 986

Eskaintza

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dut.

☎ 636 193 807 (Itziar)

Emakume euskalduna behar da baserrian emakume nagusi bat zaintzeko. Autoa izatea hobesten da. ☎ 661 023 454 (Tere)

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu. ☎ 680 489 416

ETXEBIZITZA.....

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

GARAJEAK ETA LOKALAK.....

Lokala alokatzen dut Ermuaranbide 20, behean. 106m2, argia, ura, komuna eta lursail zati bat ditu.

☎ 670 406 748

Garajea erosiko nuke Bernardo Ezenarro kalean, Eroski azpian.

☎ 666 269 636

<p>Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.</p>	<p>BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:</p> <p>Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.</p>
--	--

  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p style="text-align: center;">660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Garaje bat erosi asmo dut. Hipoteka mailegu bat eskatu dut eta jakin nahiko nuke ia eskritura ikusteko aukerarik dudan sinatu aurretik.</p> <p>Erosleak eskubidea dauka notaritzara joan eta eskritura-proiektua ikusteko, sinatu aurreko hiru egun baliodunetan (astegunak). Eskritura proiektuan banketxearekin adostutako finantza-baldintza guztiak agertu beharko dira eta baita finantza-baldintzak ez diren beste zenbait ere. Neurritz kanpoko klausularik balego, notarioak kentzeko eskatu beharko lioke banketxeari. Notario aurreko eskritura-ematea ez da eskritura sinatzera mugatzen. Erosleak eskritura hori irakurtzeko behar duen beste denbora eska diezaioke notarioari. Ondoren, notarioak ahoz goran irakurri beharko du eskritura hori eta hipoteka-maileguaren edukia azaldu beharko du. Sinatu aurretik, notarioak katastroko eta Jabetza Erregistroko liburuak begiratu beharko ditu, bermatzeko ez dagoela erosi nahi den horren gaineko karga edo mugarik.</p> <p>AHOLKUA: Banketxeek idatzitako kontratuak luzeak eta zehaztasun handikoak izan ohi dira. Komeni da tentuz irakurtzea eta sinatu aurretik notarioari dauzkagun kezka guztien inguruan galdetzea, gero ezustekorik izan ez dezagun.</p>
 <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>	



Argazkiak martitzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Maite Mendizabal** zure 4. urtebetetzean. Muxu asko etxeko guztion partez.



Zorionak, **prinzesa!** 6 urte handi! Familia-koen eta lagun-ekin partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Anike,** igandean 6 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiar-eko guztion partez.



Zorionak, **Maren!** Bixar 6 urte! Sei tirakada belarrixetatik! Muaaaaaaaaa!



Zorionak, **Asier,** igandean 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, mutil handi! Muxu potolo bat denon partez.



Zorionak, **Aner!** Astear-ean 5 urte potolo bete zenituen! Oso ondo pasatu genuen! Ask-asko maite zaitugu.



Zorionak, **Lara,** igandean 11 urte handi beteko dituzulako. Jarr-aitu orain arte bezain alai eta umoretsu. Etxeko guztion partez, muxu asko.



Zorionak, **Maite,** martxoaren 8an 10 urte bete zenuelako. Oso ondo pasa genuen! Muxu handi bat



Zorionak, **Iñigo** eta **Telmo,** astear-ean 9 urte beteko dituzuelako! Patxo potolo bana familiar-ekoen eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.



Zorionak, **Danel** eta **Sabin,** astele-henen 5 urteko beteko dituzuelako. Patxo bat etxeko-ekin partez.

Erretratu bakar-eko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagun-ekin gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakar-eko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagun-ekin gorako taldeak: 12€

aldaz
hartz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toriblo Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 15
943 740 191 / 667 961 628
www.fisio-mas.com
IBNS 87718

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bállen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hartz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Etxepantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

12 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Elisa y Marcela'. Herriko Antzokian.

13 ZAPATUA

9:30 Zuhaitz landaketa, Mendaron. Udalak antolatuta eta Arno guraso elkar-teak lagunduta. Herriko Enparantzan batuko dira, Txixirikara oinez igotzeko.

12:30 Kontzertua: 'Soundpainting'. Musika Eskolak antolatuta eta Sinuösek lagunduta. Herriko Antzokian.

14 DOMEKA

16:30 Antzerki familiarra: 'Meri, Mari eta Lari'. Herriko Antzokian.

16 MARTITZENA

18:30 Argazki erakusketa: 'Veneziako esentzia'. Esmeralda Zapparoliren argazkiak. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai martxoaren 30era arte.

19:00 Bizikidetzeta jardunaldia: 'Zubiak' dokumentala. Kultur Etxean.

18 EGUENA

19:00 Bizikidetzeta jardunaldia: Eskubi-deen urraketari buruzko hitzaldia. Laura Pego Otero (Kriminologiaren Euskal Institutuko kidea) eta Ana Isabel Perez Machío (Zuzenbide penalaren katedraduna) izango dira hizlariak. Musika Eskolan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Foto de familia'

13 zapatua: 19:00

14 domeka: 19:00

15 astelehena: 19:00

'Volver a empezar (Herself)'

(Ongarri zinekluba)

17 eguaztena: 19:00

Otsailean hildakoak

- **Ignacio Salegi Urain**
78 urte, otsailak 2
- **Concha Izurdiaga Lekaroz**
96 urte, otsailak 5
- **Juan Luis Arrieta Iriondo**
77 urte, otsailak 6
- **Ramon San Martin Zubizarreta**
100 urte, otsailak 6
- **Rosendo Lopez Medrano**
89 urte, otsailak 9
- **Concepcion de la Fuente Ortiz**
92 urte, otsailak 10
- **Manuel Beraza Mujika**
93 urte, otsailak 10
- **Maria Luisa Salazar Gil**
94 urte, otsailak 15
- **Lourdes Uriguen Sodupe**
93 urte, otsailak 18
- **Desiderio del Hoyo Amigo**
78 urte, otsailak 19
- **Jesus Maria Iriondo Arrizabalaga**
81 urte, otsailak 20
- **Rosario Belio Prieto**
92 urte, otsailak 25
- **Bibi Gurrutxaga San Martin**
73 urte, otsailak 27
- **Manuel Osoro Unanue**
75 urte, otsailak 28

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

12 BARIKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA	15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA	18 EGUENA	19 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez / *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarakurutz, 7 (Eibar)
943 201 912



Ana Mari Azpiazu Unamunzaga

2021eko martxoaren 7an hil zen, 72 urte zituela.

**Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gurekin.**

Etxekoak



Jose Maria Arruti Urbieta

2021eko martxoaren 8an hil zen,
85 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak.

**Maitasunez,
beti gure bihotzetan.**

Etxekoak



Sabina Arrieta Etxaniz

2021eko martxoaren 10ean hil zen, 96 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure barriaren falta sumatzen dogu etxian,
beti maitasuna eskainiz, beti umore onian.
Hutsune haundixa utzi dozu, gu guztixon bihotzian,
atseden hartzazu lasai, aitxitxan aldamenian.**

Etxekuak



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

**BIENA S.L.**
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Aroztegia  Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
cliente@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
telefono@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**Ibamar**
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA 

 Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

**BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltseritza
► Pintura

ELEKTRIZITATEA


egoluz 
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
egoluz@hotmail.com

LEIHOAK

**LADOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak
► Iturgintza
► Elektrizitatea

► Aroztegiak
► Erreformak